
KEREXETA JAUNARI

Nundiko norako jokabidea
asi lei gizon onegaz
itxaso bera dirudi eta
arrañik ederrenagaz:
aizeak jota dagon itxaso
dirudi maiteagaz,
ara ta ona gazterik dabil
ardura aundienagaz.

Euskalerrian eta Kastillan
egin ditu ikasteak
gogo onenaz ondo osotuz
beraren ikaskizunak;
lenen lenengo bere errian
ar zitun ikaskizunak
gero on doren erritik kanpo
osotuz jakintza lanak.

Lenen lenengo abadegintzan
Burgosen musikalaria
bigarren lana organujole
Sebillan dabil kantari;
irugarren lan aipagarria
eskeinduz Jaungoikoari
Vigo'ko Tuy'n dabil apaiza
eleiz otsein serbitzari.

Amairu urte erritik kanpo
beti, eleiza otseintzen
bere nortasun aipagarria
joan zan ondo zabaltzen;
orren ondoren bizi barria
asi bear zan agertzen
Elorriori seme trebea
asi jako urreratzen.

Bizkai zelaiak eta mendiak
eguzki printzaz batean
aurrera doaz argi zabaltzen
abadearen bidean;
geroago ta indartsuago
dabil aizea aidean
asmo bikaiñak sortzera doaz
Kerexetaren barnean.

Euskalerria jakintsua da
izkuntza arazoetan
zoragarriko berbeta dauka
arimaren errailetan;
nork ez dau maite edertasuna
jakiturizko itzetan
maitasun garrez inguraturik
bizitza dana urretan.

Berezko doia izan zenduan
Elorrioko semea
ta euskal itza maite zenduan
jakituriaz betea;
betirako dana arnas biziaz
itzi bear zan elea
Euskalerria nun bizi izan zan
agertuteko erea.

Lenen lenengo agertu zendun
gure izakuntzaren ederra
jakitun asko arritu ditun
olerki gai zorakorra;
egi-egitan aurrera joian
euskaldunen itz jatorra
olerki gozoz poztueraziz
euskera zarraren lurra.

Danen artean gauz aundiena
Jaungoiko itza bera zan
zerutik ona etorri jakun
salbamenaren bidean;
Biblia dana zure erriari
argitu zeuntsan euskeran
gizabizien askatasuna
lortzeko zorionean.

Egite asko dira ederrak
gizonaren bizitzean
ta bat bakarrik nagusiena
biotzaren barrenean;
Jaun goiko itza artu egizu
borondate onenean
Kerexetaren asmoa izan zan
argi eitea lurrean.